

San Joan bezpera



Ekainaren 23an, asteazkena, San Joan bezpera ospatuko dugu urteroko moduan. Herriko plazako festa arratsaldeko 7:30etan hasiko da. Ordu horretan, Arkaitz Miner eta Garikoitz Otamendi musikari eta dantzariarekin erromeria izango dugu. Haien jarritako erritmora herritar denok dantzatzeko aukera izango dugu. Ondoren, herriko haurren dantzak, trikitalari gazteen piezak eta Uharka abesbatzaren kanta izango ditugu. Eta nola ez! Suaren inguruan borobilduko da festa. Azkenik, denok mahaiaren bueltan elkartu eta tertulia-giroan afari-merienda egiteko aukera izango dugu.

Uztailaren 24an jubilatuen irteera



Uztailaren 24an, larunbata, egingo da aurten, urteroko jubilatuen irteera. Udaleko Ongizate sailak antolatzen duen eskurtsioa aurten Arabako Errioxa aldera egingo dute herriko adinekoek. Goizean autobusez irten eta Laguardia aldera joango dira. Inguru hartan bazkalduko dute ardo ona lagun hartuta eta iluntzerako itzuliko dira Zeraina. Eskurtsioan joango direnek udaletxean (telefonoa: 943801724) eman behar dute izena. Jubilatua ez den norbaitek ere joan nahiko balu, autobusean lekua egongo da, eta beraz, apunta daiteke.

Herri-bilera egingo da ekainaren 22an

Datorren ekainaren 22an, asteartea, iluntzeko 7etan herri-bilera egingo da udaletxeko ganbaran, Udalak deituta. Bileraren helburua hainbat gairen gainean informazioa ematea eta eztabaidatzea izango da. Udaltaldeak honako gaiak landu nahi ditu bilera horretan:

- Tasak.
- Baso-bideak: fidantzak.
- Terreno erosketa Parke Natural eremuan.

- Tren proiektua.
- Paseatzeko bideak.
- Zabalegiko kanpa.
- Etxebizitzak.
- Parte hartzea eta udal-hauteskundeak.
- Bestelakoak.

Gaien garrantzia dela-eta, Udalak dei egiten die herritar guztiei bileran parte har dezaten. Hitzordua, beraz, datorren astearte iluntzean, udaletxeko ganbaran.



Kultur etxeko batzar orokorra

Joan den ekainaren 6an, igandea, Oa kultur elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen kultur etxean. Juntako ordezkariak eta hala nahi izan zuten herritarrak bildu ziren bileran elkarrearen urteko gorabeherak azaldu eta landu ziren.

Hasieran, elkarteko ordezkariak Oaren urteko diru kontuen berri xehetua eman zuten. Horren ondoren, urteko ekintzak zerrendatu eta balorazio orokorra egin zen. Jarraian, datorren urteari begira aurreikusten

diren ekintzen berri eman zen eta aldi berean, zeraindarren proposamenak jaso ziren.

Batzar orokorraren azken zatian, aurtengo Andramari jaiei buruz hitz egin zen. Festak eta urtekaria antolatzeko lehen bileran esan zenez, bigarren bilera batzar orokorrean egingo zen; eta hala izan zen. Elkartutako herritarrek festetarako beren ideiak eta aukerak aurkeztu zituzten. Ondorioz, festetako programa ia osatuta geratu zen.

Gipuzkoako bola txapelketa jokatu zen ekainaren 6an

Haur, gazte, emakume eta beterranoen Gipuzkoako bola txapelketa jokatu zen Zeraingo Liztormendi bolatokian, ekainaren 6an. Emakumeen artean Rosa Mari Santos izan zen irabazle Zeraingo Aitziber Makazagaren aurretik. Aitziberrek ezin izan zuen iaz jantzitako txapela berriz bururatu. Haurren artean Mikel Aranburu izan zen nagusi, eta gazteetan Lander Ugalde segurarra. Beteranoen txapela eta eguneko tiraldia German Gereñuk irabazi zituen.

Zeraingo I. pelota txapelketa jokatu da plazako frontoian

Herriko gaztetxoek ekimenez eta Oa kultur elkartearen laguntzaz, aurtengo udan nobedadea izango dugu herrian: Plazako frontoi txikian herritarren arteko I. pelota txapelketa jokatu da. Herriko haur, gazte nahiz helduek parte har dezaten antolatu da lehen aldiz txapelketa hau. Uztailean zehar egingo da ligaxka, finalerdiak abuztuaren 13an jokatu dira, eta finala Andramari eguerdian. Datozen egunetan irekiko da izena emateko epea. Anima zaitzez!

Liztormendin junta berria, atea irekita

Liztormendi elkartearen azken batzar orokorraren ondoren, honela geratu dira juntako karguak:

Lehendakari: Miren Makazaga.

Lehendakariorde: Luis Etxaide.

Idazkari: M^a Jexux Mendizabal.

Diruzain: Igor Ojanguren eta Mari Flor Mendizabal.

Bokala: Aitziber Makazaga eta Maitane Salsamendi.

Bodegero: Pio Imaz eta Haritz Iztueta

Beste erosketak: Maitane Salsamendi

Ehizeko arduradun: Juan Mari Iztueta

Kultur etxerako: Igor Ojanguren

Mantenimendua: Haritz Iztueta.

Bestalde, azken batzarrean erabaki zenez, Liztormendi elkarteak gogorarazi nahi du atea irekita dituela bazkide berri egin nahi dutenentzat. Urteko kuota ordainduta, bazkide orok soziedadeko zerbitzuak (sukaldea, jantokia, edaritegia...) erabili eta elkarteak antolatzen dituen ekintzetan parte har dezake. Informazio gehiago nahi duenak edo bazkide izan nahi duenak juntako edozeinengana jo dezake.

Mikel Oria Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapeldun taldeka

Maiatzaren 28an Lezon jokatu zen Gipuzkoako eskolarteko bertsolari txapelketa Goierriko taldeak irabazi zuen 14 urte artekoen mailan. Talde horretan Mikel Oria herritarra izan zen txapeldunetako bat, Aratz Igartzabal, Paul iruretagoiena eta Eneko Araiztegiarekin batera. Zorionak Mikel!



Lehen Jaunartzea Josuk



Joan den maiatzaren 30ean, Zeraingo Telleriko Josu Lazkanoiturburuk lehen jaunartzea egin zuen. Zorionak Josuri eta sendiari!

Bidetxurre

Definitzen erraza da gaurko hitza. Elenaren esanean "oinezko bidea" da *bidetxurra*. Zehatzago esanik "bide estue, persona batentzat edo gehienez birentzat, askotan bidea moztearren zelaia zeharkatuz egin ohi zena". Espelikazio zehatzagorik ere erantsi dio berak, etxean eta inguruan entzundakoak batera bilduz: "garai batean, baserrietara kaminorik ez zenean, etxe batetik bestera joateko *bidetxurra* nonahi ziren. Orain, berriz, mendibideetan ikusten ditugu *bidetxur* gehienak. Era askotakoak izaten ziren *bidetxur* horiek. Galtzadetan eta etxe-ko gurdibideen ondoan, esate baterako, koska bat altuago izaten zuten oinezkoentzako *bidetxurrek*. Etxeko bidean ezagutu izan dugu halakorik, kaminoa egin zen arte. Zerainen bertan, oraindik ere, hainbat lekutan ikus liteke halakorik: esate baterako, Zeraingo galtzadan, Bidartetik Olabide-txikira doan bidearen eskuin aldean. Menditik goiko aldabera ere badago halako unada bat. Baita Sagastibildik Arroletara doan bidean ere, Sagastibilgo egilehorraren inguruan. Gehiago ere izango dira seguru asko, oraindik galdu gabeak". Bukatzeko, aurrerago ikusiko dugun puntu bat aipatzen du Elenak: "*bide-txurra* ez dira zeharo galdu, baina izena aldatu diegu hainbati. Bidexendak esaten diegu orain lehen *bidetxurra* zirenei".

Garbi dago, beraz, hitzak zer esan nahi duen. Zer dio hiztegiak, hanhemengo joeraz? *Bide-zidor* hitza aukeratu behar dugu horretarako. *Bide-zidor* eta bere kidekoak ugari dira hiztegian: *bide-zior*, *bide-xidor*, *bide-txidior*, *bide-txior*, *bide-zigor*, *bide-xigor*, *bide-txigor*, *bide-zingor*, *bide-txingor*, *bide-zinior*, *bide-zeor*, *bide-txeor*, *bide-xiur*, *bide-txiur*, *bidatxiur*, *bidexur*, *bidetxur* eta, Tolosa aldean, *biitxur*, *biitxurre*. Besterik ere ematen du hiztegiak: *bide-xenda*, *bide-xendra*, *bidexka*, esate baterako. Baita *zidor-bide*, *zigor-bide* modukorik ere.

Definizioa ematen hasita, hona hiztegiak zer dioen: camino estrecho, senda, sendero, senderillo, sendero abierto en el monte por el ganado, atajo, camino de herradura. Ikusten denez, forma diferente asko ditu hi-

tzak. Baina forma horiek guztiak elkarren antzekoak dira funtsean. Badirudi Euskal herri osoan, edo gehienez, ezaguna dela hitza aspalditik: horregatik izango ditu aldaera ugari horiek. Hitz zaharra da, eta luze-zabal hedatua. Morfologia eta lexiko aldetik erreparatzen badugu kontua, argi dago zati bi dituela *bidetxur* edo *bide-zidor* horrek. Batetik *bide*, eta bestetik *zidor*. Lehenengo partea badakigu zer den. Zer esan nahi du ordea bigarren zatiak? Zer da *zidor*, *zigor*, *zior*, *xior*, *txior*, *xiur* hori? Hiztegi joko dugu berriro, eta erantzun argia jasoko: *estua*, *zabalaren kontrakoa*, hori da lehenik eta behin *zidorra*. *Bide estua* da, beraz, *bidetxurre*. Are gehiago: hainbat lekutan adiera horixe omen du *zidor* hitzak, bere huts-hutsean: *bide estua*, *sendero*. Esan, halere, badirudi forma konpletua, bi atalekoa, esaten dela maizenik. *Bidetxiurretik nabil* bai, horrelakorik maiz entzuten da; baina *txiurretik nabil*, edo antzekorik, apenas inor askok esaten duen ez Zerainen eta ez beste leku gehienetan.

Galtzen ari al da hitza? Elenak baietz uste du. Esan, behintzat, gero eta gutxiago esaten dela iruditzen zaio. Entenditu, halere, hainbatek entenditzen du oraindik: entenditu bai, baina esan ez. Zaharrek entenditu eta esan, gazteek entenditu bai baina esan ez. Non dago zaharren eta gazteen arteko muga? Adin-muga hori, inon egotekotan, berrogei urteko jirabuelta horretan legoke bere ustez.

Zergatik ari da hitz hori galtzen? Betikora gatoz: behar ez delako. Eta zergatik ez da behar? Bizimodua aldatu delako. Autoz gabilta, batetik, oinez baino sarriago: autorik ez da normalean bidetxiurretan barrena ibiltzen. Bestetik, berriz, garai bateko *bidetxur* estu-meharren eta gurdibideen ondoan (edo gainean) pista zabalak prantatu ditugu ia nonahi: pistak, zementuzko kaminoak eta asfaltozko bide dotore askoak. Aldakuntza teknologikoak, eta teknologiazko aldakuntza horrek bizimodu, ohitura eta ikuspegi soziokultural berriak ekarri ditu. Berrikuntza teknologiko eta soziokultural oso horrek ekarri du *bide-txurren* gainbehera lehenik, eta hitzaren galbi-

dea ondoren. Aldakuntza teknologiko eta soziokultural horiek bihurtu dute hainbat *bidetxur* alferrikako.

Erabat galduko al dira *bidetxurra*? Ez da jakiten erraza. Teknologiarren berrikuntza-bideak alto egingo duenik ez dirudi. Teknologiarren aurrerakuntzak ez du esan nahi, ordea, azken 40 urteko bizimodu-aldaketak bide berberetik joko duenik etengabe. Gerta liteke, esate baterako, patrikak hala aginduta edo beste motiboren batengatik zenbait ohituratan atzera egin beharra. Etxeko autoa behar dugunean eta ez dugunean erabiltzeko joera hori, esate baterako, itxura gabe zabaldu zaigu joan den mende-laurdenean. Baliteke belaunaldi berriek auto kontu hori beste era batera baloratzea eta, oinez zein bizikletaz, azken aldiotan baino sarriago ibili nahi izatea. Nahi izatea eta halaxe egitea. Herriko plaza begira ezazue, edozein arratsaldetan, eta hamar eta hamasei urte arteko gazte-gaztetxoak etengabe ikusiko dituzue bizikletaz. Denak autora pasako al dira itsu-itsuan, hemezortzi urtera iritsi eta karneta atera bezain azkar. Ez ote diote bizikletari ere bere lekua, bere funtzioa gordeko beti autoa arrankatu gabe?

Baietz pentsa liteke: bizikletaz ibiltzeko joera ez dela gazte-gaztetxoaren esparrura mugatuko. Bizikletaz ibiltzeak beldurra eman behar duela esango didazue. Aldapa handiez gainera, autoek harrapatzeko arrisku bizia dagoela. Bideak ez dira, dena den. Bizikletazko ibilera horietarako aukera bakarra. *Bide-zidorra*, *bide-txurra* ere egokiak gerta litezke horretarako. Zenbait kasutan, beraiek izan litezke egokienak. Baliteke, beraz, hemendik hogeit berrogei urtera *bidetxurren* kontu honek atzerabideren bat izatea. Orduan bizi denak ikusiko du, kontua nola den. Oraingoan, badago nahikoa lan behinolako *bidetxurra* zaintzen. Badago nahikoa lan laharra eta sasiak, lubizak eta alanbre-hesiak ito ez ditzan. Lan handia egiten du horretan Zeraingo herriak, aguazila eta bere taldea buru direla. Noiz arte? Ekologia hainbat aipatzen eta goraiatzen den aldi honetan, konturatzen al gara benetako ekologistak nor ditugun?

Mikel Zalvide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

MAIATZA	al	ar	az	og	or	lr	ig
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 132,25l.					8	3
C° altuena	ALTUENA: 32°					19	14
C° baxuena	BAXUENA: 2°					10	7
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	20	31	20	3,5	6	0	4
C° altuena	10	6	9	16	18	23	21
C° baxuena	6	5	6	5	2	7	9
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	0	0	2	5	6	16	2,75
C° altuena	24	19	13	14	20	17	19
C° baxuena	7	6	8	6	3	7	4
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	22	26	22	25	30	31	31
C° baxuena	7	5	6	6	5	10	10
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	2	0	0	0	1,5	0	1
C° altuena	30	32	28	26	18	25	21
C° baxuena	16	14	14	13	12	6	11
	31						
Euria (l/m)	0,5						
C° altuena	30						
C° baxuena	16						

Maiatza lore-hila

Hala dio esaerak, baina aurtengoan lore asko izateko ez dugu eguraldi aproposena izan maiatzean. Lehen hamabostaldia nahiko freskoa eta bustia izan genuen, eta elurra ere ikusi genuen mendietan lehen bi aste horietan. Hala ere, bigarren hamabostaldian tenperaturak epeldu eta atertu ere egin zuen. Benetan beroa izan zen 22 eta 23ko asteburua (31 °C). Azkenean, udaberriko giro erdi-zoro horietan larrosa batzuk behintzat loratu dira!



Mutiloko sagardo probaketara VII. jaitsiera



Datorren uztailaren 2an, ostirala, Mutiloan San Pedro jaietako sagardo-probaketa mundiala egingo dute. Azken urteotako ohiturari jarraituz, aurten ere Zeraindik elkarrekin festa-giroan Mutiloara jaisteko aukera izango dugu. Iluntzeko 7:15ean plazan elkartuta, txistularien eta trikitilarien laguntzaz egingo dugu Zeraindik Mutiloarako bidea.

Partzonerian lanpostuak

Partzonerian baso garbitzen lan egiteko hiru hilabeterako hiru lanpostu atera ditu INEMek. Langabezian dauden pertsona interesatuek www.redtrabaja.es webgunean izena eman behar dute (zailtasuna dutenek Beasaingo INEMen bulegoan egin dezakete). Izena emateko epea ekainaren 28tik uztailaren 5a artekoa da, eta lehenitasuna dute Partzoneria osatzen duten herrietako langabeek. Informazio gehiago nahi duenak udaletxean galde dezake.

Ehunmilak probarako boluntarioak behar dira

Uztailaren 17 eta 18an jokatu den "Ehunmilak" mendi-lasterketa herri-tik pasako zaigu. antolakuntzan laguntzeko boluntarioak behar dira. Probari eta egin beharreko lanari buruz azalpenak ekainaren 22ko herri-bileran emango dizkigute.